

NAFARROA DA EUSKADI

TXILLARDEGI

Aurten alderdi aipagarri batzu izan ditu Iruñeko Aberri-Egunak. López Pinto-ren egintzak jakinerazi dira batetik. Bestetik, berriz, manifestarien ilara gaitza azpimarratu da: Donostian eta Gasteizen baino handiagoa, hogeita-hamar mila lagun. Gutxiagotan aipatu bide da, ordea, Iruñeko kaleetan barrena entzun zen lelo harriarria: «**Gi-puz-koa Eus-kadi da**» ... Nafarroaren euskaltasuna zalantzan jartzea bera erabat gainditurik bailegoan.

Eta egon, badago.

Eta, alde horretatik, halako xahar kutsua izan dezake artikulu honek.

Baina oraindik ere, eskubi eta ezker (?) aldeko inperialismoek oro betiko zatiketa-lanari eusten diote (= «una cosas son las vascongadas y otra cosa Navarra»), egun hauetantxe euskarari buruzko jokabideetan ongi agertu denez.

Eta hori dela-ta, artikulu hau izkiriatzeara mesedegarri gerta daiteke aldetatik.

Tafallan nengoelarik, «MERINDAD» izeneko aldizkari bat topatu nuen salgai. «Número 295»... eta nik ezagutu ere ez! Eta, jakin-minez, erosi egin nuen. Azkoien-en argitaratua, Herriberri-Merindadeko goraberak defenditzen ditu.

Hots, hona hemen ene lehenengo

sorpresa. Azalean bertan, eta letra handitan, idazpuru hau: «El domingo día 15 se celebrará en Pamplona el Aberri Eguna. Desde Tafalla saldrán autobuses a las 10 horas del Portal del Río...»

Aldizkariaren barruan, eta mementoari zegokonez, hauteskunde-giroa nagusi: «Composición de los Ayuntamientos de la Merindad». Eta hor, ilaran, harmarriak eta guzti, Merindadeko 27 herrien kontzejal-zerrenda osoak: 225 izen eta 450 deitura, herriz herri emanak. Hona zein: Artaxona, Barasoain, Beiria, Berbintzana, Kaparrotsu, Faltzes, Funes, Garinoain, Larraga, Leoz, Martzilla, Mendigorria, Milagro, Miranda, Murillo el Cuende, Murillo el Fruto, Herriberri, Oloritz, Orisoain, Azkoien, Pitilla, Pueio, Untz-ko San Martin, Santakara, Tafalla, Uxue eta Untzue.

Zenbait herri txikitan, bost kontzejal hautaturik (Untzue, Oloritz); beste zenbaitetan gehiago, are hamahiru ere (Tafalla).

450 deitura horiek, Merindade horretakoak izanik, halako nafartar «erdibide»tzat edo eman bide daitezke. Ez ditugu neurtzen ez Goizueta eta ez Buñuel. Hots:

1. — 450 deitura horien azterketa axala egiten baldin bada, 321 deitura agertzen zaizkigu euskara hutsezko: Erreguerena, Ofizialdegi, Biurrun, Beramendi, eta horrelako tankerakoak. Ehunekotara paseaz, hortaz, nafartar deituretan %71 aurkitzen ditugu euskara nabarmenez. Zer esanik ez: beste mordoska batek ere, erroetara joanez gero, bere euskaltasun gordea erakutsiko luke seguru aski: Resano, Sola, Terés, Ducun, Labiano, eta abar. Nekez aurki daiteke, deituren

MERINDAD

Dirigido: JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ DE ZUNIGA - Imp.: GRÁFICAS AZKOTEN (PAMPLONA)
 Edita: MERINDAD - Red. y Admón.: C. Sotelo, 9-1. - Tf. 700908. Dep. Leg. N.º 837/1973
 AÑO VII — NÚMERO 295 — TAFALLA, 14 DE ABRIL DE 1979 — PRECIO 15 PTAS.

mailan, eskualde euskaldunagorik gaur Bizkaian edo Gipuzkoan.

2. - Nafarroako deiturretan Euskal Herri guztiko aztarna aurkitzen da garbiki. Horra hor, zerrenda horretantxe, Elduayen (Murillo C.), Ibarra (Azkoien) eta Azcoiti (Pitilla), bate-tik; eta horra hor ere, Zoroza (Beiria), Orduña (Funes), Marquina (Gari-noain), Chávarri (Mendigorría) eta Mariavales (Murillo F.), bestetik.

3. - Pirineo-tako muga ukaturik aurkitzen dugu Merindadeko zerrendan. Hor ditugu Macaya (Larraga) eta

Olleta (Murillo F.), Lapurdi-ko Makea eta Olheta-ren oroigarri; eta hortxe ere Indurain (Pitilla), Ziberu-ko Undüreine-ren lekuko.

Baina ezin azkarkiago agertzen zaigu Baxenabartar anaien zantzua: Osés (Barasoain; Azkoien, bitan), Beorlegui (Barasoain), Suescun (Berbintzana, Larraga), Izura (Faltzes), Armendariz (Faltzes, Oloritz), Gabari (Murillo Fr., bitan; Untzue), Irisarri (Murillo F.), Garriz (Murillo F.), Izpurua (Oloritz, Untzue), Jusue (Orisoain), Garro (Santakara), eta Landibar (Santakara). Nafarroa zatitu duen muga hori agertu arte, zer zen Iparraldeko eskualdea? Aski garbiki mintzo zaizkigu izen horiek.

4. - Zazpi probintzietatik at gelditu diren eskualdeen aztarna ere agiri da nafartarren izenetan: Alfaro (Berbintzana, Murillo F., Miranda), Leza (Martzilla, Herriberri), Egea (Herriberri).

Horra hor Euskadi osoa nafartarren deiturretan gailen.

- Euskal izen horiek - erantzun lezake norbaitek - «leku izenak direnez, kontu zaharrak dituk»...

Zer esan, ordea, zerrenda horretan agertzen diren giza-izendapen horietaz, dudarik gabe besteak baino modernoago?



Hots, hor ditugu hauek: Escuchuri (= esku-xuri, Funes), Lucea (= luzea, Larraga), Andia (= handia, Larraga), Ezquerro (= ezkerra, Martzilla), Ederra (Murillo G.), Gorri (Herriberri) eta Gorria (Tafalla), eta Belza (= beltza, Pitilla). Nork ez du euskara bizi bizirik somatzen gaitzizen ezin jatorrago horietan? UCD-ari eta PSOE-ri gaitzi bazaie ere, euskara izan baita zinez Nafarroa-ko mintzaira, «lingua navarrorum» hura.

Hots, are garrantzitsuago dudarik gabe deituta guztiak baino; Euskal Herriaren eskubideak ez baitira deituta arazo bat!

«Agrupación E. Popular» delakoak, irizpide abertzaleetatik hurbil, bostu-daletxe lortu ditu, Tafalla barne.

Eta Tafalla-ko euskaldun berri batekin hitz egin dudanean; eta Iruñeko kaleetan barrena «San Martingo Gazteria» pankarta zabala ibilki ikustean, eta Azkoien-goak «Erribera Euskadi» oihuka entzun ditudenean, sinetsi egin dut: jadanik **EUSKADI NAFARROA DA**. Euskadi-ren projektua ez baita izan, bestalde, eta ez baita gero ere izango, Nafarroa zaharra piztutzeko projektua baizik.

Eta hau guk baino hobeki daite Del Burgok, Aizpunek, eta gainerakoek. Ehun urtez kazikismoan eta oskurantismoan nafartar herria atxiki ondoren, abertzaletasuna eta egiatza nafartasuna, euritearen ondoko epealdian onttoak bezalaxe, ari baitira hozitzen eta buztantzen.



GURE EGUNKARIA.

egin

Nº de inscripción 2506
Aptdo Correo 1397
Redacción: Ibilera,
Administración y Publicidad
Pof. Escalzo 10-1
Tel. 943 15 48 (0-10)
San Sebastián: Herriari

Nº 1 SEPTIEMBRE 1977

Redacciones en
Alava: General Alava, 30, Vitoria
Navarra: Estebela, 57, Pamplona
Vizcaya: Macarredo, 6, Bilbao
Madrid: Euzkadi, 32
(Edificio EFE)

Nº 1 ABRIL 1977